



Leidorreko zinema arloa kudeatzeko eredia, prest

TOLOSA ▶ Zine-klub taldeak egin dio proposamena Udalari, eta aretoa berritutakoan jarriko dute martxan

HELBURUA ▶ Asteroko egitaraua «zabaltzea eta hobetzea» du xede, ikus-entzulegoa asetu ahal izateko ▶ 3

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

'Urrezko' aizkolariak, finalari so Leitzan

Rekondo eta Mujika, banakakoa hasteko ▶ 7



'Cantervilleko mamua', Oscar Wilderen ipuinean oinarritutako lana ikusgai

VILLABONA ▶ Haurrentzako istorioa antzeztuko dute bihar Gurea aretoko taula gainean ▶ 4



Erremontari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30
LENTZERIA



Kuadrila eta taldeentzat **-%10**
INAUTERIAK
Helduentzat eta haurrentzat
Koloretako kamisetak
Kolore bizi eta marradun galtzerdiak
Pantiak, eskularruak...



Pertsonak hezitzea eta osatzea gure erronka

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

2-16 urte bitarteko hezkuntza

Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza
- Kalitatezko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)
943 69 20 58 (Txermin auza • Villabona)
943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)

billabona@ikastola.net

TOLOSA ▶

Luis Mari Nuñezen lanak ikusgai ▶ 2

ERAKUSKETA ▶

Gure paisaiak eta txokoak begi aurrean

Hilaren 25a bitarte izango dira ikusgai Nuñezen marrazkiak Aranburun

IÑIGO ASENSIO

Hilaren 25a artean izango da ikusgai, Aranburu Jauregiko erakusgelan, Luis Mari Nuñez margolari anoetarraren marrazki erakusketa. Urtarrilaren 20an ireki zituen atea eta, orduz geroztik, jendearen onespena jasotzeaz gain, ugariak dira bertako bisita liburuan autoretari luzaturiko zorientze eta animo hitzak. Ikatz-ziriz eta bolaluz egindako koadro sorta honetan, askotariko gaiak aurki daitezke. Landa-giroko paisaiek, naturak, ostatuak, eguneroko paisaiek edota paisaia hiritarrek definitzen dute artista autodidakta honen azken erakusketa.

Badira ia 20 urte anoetarrak bere obrak lehen aldiz kalera zituela. 1986. urtean Anoetan egin zuen bere lehen erakusketa, eta orduz geroztik Euskal Herriko eta Errioxako

(Espainia) hainbat txokotan bere obra aurkezteko aukera izan du Nuñezek, hauen bidez jendea eguneroko gauzetara hurbilduz, bere koadroen berezko naturaltasuna eta adierazkortasuna direla medio.

Aranburu Jauregian ikusgai den koadro sorta honetan Tolosaldeko hainbat txokok protagonismo handia dute. Tolosako Trianguloa, Santa Maria eliza eta Errota, Anoetako plazak hainbat irudi, Alkizako plaza, Izaskungo ermita eta beste hainbat leku ikus daitezke bertan.

Gainera, naturako elementuekin irudikatutako zenbait metafora eta euskal baserri giroko irudi batzuk jasotzen ditu bere obrak. Urteekin, gaien aukeraketaz gain, gaiak tratatzeko moduan ere eboluzionatu duen artista dugu, marrazkietako lerroei tratamendu nabarmena ematen diena.

LUIS MARI NUÑEZ ▶ MARGOLARIA

«Gure gizarteak duen presarekin ez gara ingurukoaz jabetzen»

Duela 20 urte erakutsi zituen bere lanak lehen aldiz. Urteen joan-etorriarekin leku gehiagotara joan da bere lana hedatzen. Hainbat urtetan saiatu ondoren, Tolosako Aranburu Jauregian bere marrazkiak erakustea lortu izanak suposatzen duenaz mintzatu da Luis Mari Nuñez margolari anoetarra HITZAREKIN.

Zein da erakusketarekiko jendearen harreraz egiten duzun balantzea?

Orain jende gutxiago joaten bada ere, lehen hamar egunetan jende mordo eta etorri zen koadroak ikustera. Jendeak galdetu egiten dizu, interesa jartzen du, eta hori eskertzekoa da. Bertako bisita liburuan ere zorientzeak eta iritzi onak ikusi ditut; eskertzekoa da.

Zer da zure koadroetan transmititzen duzuna?

Errealitatea islatzen saiatzen naiz. Egunerokoan kalean ikusten ditugun gauzak irudikatzen ditut. Gure gizarteak duen presarekin ez gara ingurukoaz jabetzen.

Badira urte batzuk Aranburun erakusketa egin nahi zenuela, berezia al da zuretzat?

Niretzat gehienezko aspirazioa da. Lehengo urtean Donostiara eramane nuen nire lana, Londres Hoteleko Bingera, eta han oso gustura geratu ziren lanarekin. Hurrengo pausoa Tolosako Aranburu Jauregian erakusketa egitea zen, eta azkenean lortu dut. Pozik egoteko modukoa da, eta jendea ere gustura dago erakutsitako lanarekin. ◀



Ikatz-ziriz, bolaluz eta jela duten axotekin egindako erakusketa aurkeztu du Aranburun Nuñezek. HITZA



Periko Alonso eta Txato Nuñez, derbi batean. HITZA



Tolosako Trianguloaren marrazkia. I. ASENSIO



Anoetako herria Nuñezen hainbat marrazkitan ageri da; gainean, herriaren panoramika. I. ASENSIO

KULTURA ▶
NOELIA LATABURU

Leidorren berritze lanak amaitu osteko zinemaren arloa kudeatzeko proposamena luzatu zion Tolosako Zine-klub taldeak Tolosako Udalarari. Eta, bildu ondoren, adostasun batera heldu ziren. Taldearen esanetan, eredu hau «Tolosako zinezaleek iaizo ekainean Kultura Sailari aurkeztutako txostenen oinarritzen da». Jomuga, astero egitaraua «zabaltzea eta hobetzea» da, ikus-entzulegoa asetu ahal izateko.

Aipatutako proposamenak hainbat puntu barneratzen ditu, DVDko saioak eta 35 mm-ko saioak, hain zuzen ere. Lehenengoaren barnean, bikoizturiko klasikoak —jubilatuta eta pentsiodunei zuzendutakoak, bereziki—, genero zinema —bereziki gazteengan pentsatuz— eta haurrentzako saioak aipatzen dituzte. Bigarrenengoan, berriz, zine-klubak eta estreinaldiak. Eskaintza hau «era guztietako» publikoa lortzeko helburuz bururatu zitzaion taldeari. Jubilatuen kasuan, «saioa doakoa izatea» saiatu nahi dute.

Proposamen gehiago

Kudeaketaren harira, «etekin ekonomikoa bilatzen duen zinema programazioak alde ba-

Leidorreko zinema arloa kudeatzeko eredu onartu dute

Tolosako Zine-klub taldeak proposamena luzatu zion Udalarari; berritze lanak amaitzean jarriko dute abian



Lanak amaituta, zine-klub saioak berriro Leidorren izango dira. J. SAIZAR

tera utzi» eta beste eredu bat adostu dute; «era honetara, Kultur Saileko ordezkariak era egokiagoan burutuko dute haien lana». Adibide gisa, eus-

karazko zinema, Koldo Mitxelena Kultur sareari etekina ateratzea eta proiektio bereziak eskaintzea aurkeztu zituzten Zine-klub taldekoek. Beste

hiru puntu ere eskatu zituzten. Lehenik eta behin, DVD saioen gainekoan, zinema munduarekin harremana duen pertsona baten beharra aurrekusi zuten, aurrez zehaztutako generoen informazioa eskuragarri duena. Bigarrenik, zine-klub saioei buruzkoan, egitarau berezia mantendu nahi du taldeak. Eta, azkenik, estreinaldien harira, FIDES enpresaren bidetako kudeaketa zuzena proposatu zuten, «aukera honek astero estreinaldiren bat izatea ziurtatuko lukeelarik».

Amaitzeko, Leidor irekitzen dutenean, Tolosaldea osora zabaldu daitekeen aukera jarri zuten mahai gainean. «Leidor berriak izango duen lekua aintzat hartuz, egitarau zabala, ohikoa eta bereziki baxuak diren prezioak bermatuz».

HIRIGINTZA ▶

Sei etxebizitza babestu sortzeko proiektua abian

ERREDAKZIOA

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Sailak Tolosako Udalararekin hitzarmena sinatu du, gurean sei etxebizitza babestu sortzeko proiektua gauzatzeko. Ekimena Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2004-2007ko Inbertsio Plan Berezia jasota dago. Horrela, Aldundiak 361.000 euro gehiekin ekarpena egingo du inbertsioa gauzatzeko aldera.

Hitzarmenaren arabera, Tolosako Udalarari, besteak beste, dagokio etxebizitza babestuetarako lurra eta eraikina jartzea; ondoren, inbertsioa egiteko proiektua aurkeztuko dio Foru Aldundiari.

Proiektuari hasiera eman go zaio 18 hilabetetik gorako izango ez den epean, hitzarmena sinatzen denetik aurrera; gutxienez, 20 urtez atxikitzea ondasunen erabilera diruz lagundutako helburuari.

KULTURA ▶

Udaberri dantza taldean parte hartzeko deialdia

ERREDAKZIOA

Udaberri dantza taldeak deialdia egin die 15 urtetik gorako neska zein mutileri, taldean parte hartzeko. Interesatuek datosunen astelehenean, asteazkenean eta ostiralean Igarondo igerileku zaharrean agertu besterik ez dute, 20:30etik aurrera. Telefono zenbaki bat ere luzatu dute, nahi izanez gero informazio gehiago eskatzeko: 699 026 618. Bertan Aritzen-gatik galdetu behar da.

MUSIKA ▶

Udal Txistulari Bandaren eta Musika Bandaren kontzertua lurreamendiko egoiliarrentzat, bihar

Egoitzan bertan eskainiko dute emanaldia, 11:30etik aurrera, bi ataletan banatuta

N. LATABURU

Musika doinuak nagusi izango dira, bihar, lurreamendi egoitzan. Izan ere, Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko dute, 11:30etik aurrera, bertako egoiliarrei zuzenduta. Bi ataletan banatuko dute emanaldia; lehenik eta behin, Udal txistulariak ariko dira, Iñaki Letamendiaren zuzendaritzape-

an. Hiru pieza joko dituzte: An-sorena Minerren *Aitak eta amak*, Gerardo Butronen *Peio Joxepe* eta Inauterietako hiru kanta herriko.

Behin Udal txistularien saioa amaituta, Musika Bandak hartuko du txanda, kantutegi zabalagoarekin. Hasteko, kalderero hungariarren konpartsen lau pieza joko ditu bandak: *Kalderero hungariarren korua*, *Kalderero hungariarrak*

lanean eta *Kanta hungariarra*. Jarraitzeko, Donostiako danbor doinuen sei pieza joko dituzte: Sarriegiren *Herriko semeen eraso*, *Oilar aleriarren konpartsa*, *Danbor polka*, *Atso Zaldierien konpartsa*, *Donostiako martxa*, eta Azarolaren *Hau dek hau*. Jose Mari Oiarzabalek moldatu ditu guztiak ere, eta Luis Maria Gartzia tolosarrak burutuko ditu zuzendaritza lanak.

Inauterien gertutasuna dela eta lurreamendiko egoiliarrek Inauteri doinuak entzuteko parada ere izango dute, kontzertuari amaiera emateko. Hala, Tolosako Musika Bandak inauterietarako prestatu duen egitaraua aurkeztuko die: *Pello ziri-ziri*, *Pastelero*, *Baratzako pikuak*, *Galtzaundi* eta *Trilingue*. Goiz guztian izango da, beraz, gozatzeko aukera lurreamendin.

iragarki laburrak ▶
LANPOSTUAK

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.
Haurtzaindegi publikoak. Zaintzaileak, hezitzaileak... behar

dituzte haurtzaindegi publikoak.

943 313782.

Peioiak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782.

Gidariak. Udaletan eta Foru

Aldundian laster lanpostuak.

Kontratu mugagabeak.

943 313782.

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritza. 943 313782.

Suhiltzaileak, Ertzaintza, polizia.

2006ean lanpostu berriak.

Informazioa: 943 313782.

Haur eskolak. Haur zaintzaileak eta haur hezitzaileak behar dira. 943 313782.

Administrari laguntzaileak.

Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara,

Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Lanaldia astelehenean ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Langileak. Obratuko langileak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak behar dira udaletan. 943 313782.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

60 ekarpen baino gehiago

PNV-EAK aginte osoa daukate Anoetako Udalean, egoera antidemokratiko eta baztertzailera erabiliz beraien intereserako, talde hauen zinegotziek bakarrik osatzen baitute Fidel Azpiroz alkate duen udalbatzarra. Udalerrian, garapen iraunkorra (jasagarria edo sostengarria) helburu izan beharko lukeen Tokiko Agenda 21 egitasmoa jarri zuten martxan.

Garapen iraunkorraren kontzeptua honela definitzen da: «Gaur egungo beharizanak

asetzen duen garapena, betiere hurrengo belaunaldiak errena asetzeko beharrak arriskuan jarri gabe». Beraz, ingurumena, gizartea eta ekonomia arloak kontuan harturik, herritarren bizi kalitatea hobetzea izan beharko luke helburutzat. Eta hau guztia herritarren ezinbesteko parte-hartzearekin. Bai, bai, ados gaude, non sinatu behar da?

PNV-EAK, ordea, sinesgarritasun guztia galdu dute, herritarren parte-hartzeaz ari direnean, berak udalean herritarrek baztertzat jarraitzen dutenean. Hauteskundeetan, herriak Anoetarrok Auzolanen herri plataformari emanda-

ko lau ordezkarien karguak larpuntu dituztenean.

PNV-EAK sinesgarritasun guztia galdu dute, AHT proiektu txikitzailearen aurrean, Udalean, mozioen bidez eta hainbat sinaduren babesarekin eskatutako eztabaida ematea ukatzen dutenean. AHTren inguruan Udalak duen informazio guztia Agenda 21ko teknikaie ere ezkatzen dizkietenean. Zergatik? Hori al da benetako diagnosis? AHTren alde egin ez argi eta garbi erakusten digute PNV-EAK inposaketa eta lurraldearen sunsi-ketaren alde egiten dutela. AHT-ren proiektuak ingurumen eta sozioekonomiko kostu

ikaragarria dauka. Garapen eredu iraunkorren ez dago lekurik horrelako egitasmo erraldoientzat. Proiektu horien atzean dagoen helburu bakarra energia, porlan enpresa eta abarren etekinak handitzea da eta, bide batez, baita alderdi politiko batzuen ere.

Tokiko Agenda 21 prozesuan urrats ezberdinak bereizten dira. Oraingoa, egungo egoera jasoko duen diagnosis-aren zirriborroa burutzea da. Benetako diagnosi bat nahi dugulako herriarentzat, sakona, erreala, zuzena, behar duen denbora eskainiko zaiona, Anoetarrok Auzolanen herri plataformak, AHTren aurkako

taldeak eta Gazte Asanbladak, nahiz eta zalantza eta ezadostasunak izan Agenda 21eko bai plana eta prozesuarekin ere, gure proposamenak aurkeztea erabaki genuen. Diagnostikoa-ri (parte-hartze, ingurumena, gizartea eta ekonomia arloetan), Anoetako benetako errealitatea jaso dezan, 60 ekarpen, zuzenketa edo proposamen baino gehiago aurkeztu dizkiogu. Diagnosi on bat egin ala ez, PNV-EAren esku dago orain.

MIKEL LARRION, MANU ODRIOLAZA
ETA MIKEL URKOLA (ANOETARROK
AUZOLANEAN HERRI PLATAFORMA,
ANOETAKO GAZTE ASANBLADA ETA
AHT GELDITU! ELKARLANAREN
IZENEAN) ▶ ANOETA

ANOETA ▶

Batzar berezia asteartean Alkartasunan

Alkartasuna Biltokiak batzar berezia egingo du datorren asteartean, 19:00etan hasita. Batzarrean jorratuko den gaietako bat Ostegun Gizean egingo duten bazkaria da. Menuaren berri emango dute bileran —plater bakoitzeko bi aukera izango dira—. Prezioa zehaztu dute: 9 euro balio du, eta 60 lagunentzako tokia aurreikusituta. Izena emateko aukera asteazkenetik aurrera izango da, 18:00etatik 20:00etara.

VILLABONA ▶

Behar-Zanakoek pilotariak partidak asteburuan

Behar-Zana elkarteak pilotariak partidak dituzte asteburuan. Gaur, Eibarren eta 17:00etan, bigarren mailako kadeteak (Inza-Irurzun) eskuz binaka ariko dira Eibar ere Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketaren finalaurrekoak izango dituzte Behar-Zanakoek Zubietan. Igor Alejo eta Xabier Mitxelena (Behar-Zana 2) Zubietan 2 taldearen aurka lehiatuko dira finalera iristeko.

VILLABONA ▶ ANTZERKIA

‘Cantervilleko mamua’ Gurea aretoan, bihar

Oscar Wilde idazle ezagunaren izen bereko ipuinaren egokitzapena egin dute, haurrentzako antzezlanaren bihurtuz

ERREDAKZIOA

Cantervilleko mamua haurrentzako antzezlanaren ikusteko aukera izango da bihar, Gurea aretoan, 17:00etatik aurrera. Oscar Wilde idazle ezagunaren ipuina moldatu du Begoña Bilbao, eta berak zuzentzen du obra. Ikerne Goikoetxea, Alfonso Diez, Nerea Martinez eta Urtza Zuazo izango dira pertsonaiei bizi emango dienak taula gainean.

Ingalaterrako gaztelu batera bizitzera doan ohiko amerikar familia baten bizimoduaren berri ematen du antzezlanak. Gaztelu hori, ordea, Cantervilleko mamu izugarriaren bizitokia da. Familiak, eta batez ere umeek, mamua zapuztuko dute, izutu beharrean haren



Cantervilleko mamua obraren irudi bat. HITZA

kontura primeran pasatu eta barrabaskeriak egingo dizkiotela. Azkenean mamua Otis familiaren alabaren adiskide

egingo da, eta neskatok betiko errari ibiltzeko zigorretik libratuko du, bakean atsedean hartzeko aukera emanez.

TORTURAREN AURKAKO EGUNA ▶

Segik eta Iak grebara deitu dute

Etzi, hilaren 13a, Torturaren Aurkako Eguna dela eta, Segik eta Iakle Abertzaleek grebara deitu dute egun horretarako. 12:00etatik 14:30etara greba egiteko deialdia luzatu dute bi gazte taldeek.

Uzturpe Ikastola
5-18 urte

Ikastetxe bat baino gehiago
Uzturpe udal haur eskola
udal ludoteka
ikastola

ibarran kalitateko heziketa euskalduna eskaintzen

matrikulazio epea otsailaren 6tik 20ra
09:00etatik 12:30etara / 14:30etatik 18:00etara

aurrerantz doan ikastela
dei iragaztu eta bista argi eta oso dugu

Uzturpe Ikastola
BILBO
943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 14 13
012277aa@hezkuntza.net

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOAK

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA



Fleming Ikastetxea.

Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arratzaian (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 14 13
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio epea:
Otsailaren
6tik 17ra



Erniobea Ikastetxea.

Derrigorrezko Bigarren hezkuntza
Arratzaian (12-16 urte)
Tel.-faxa: 943 69 37 33
012952aa@hezkuntza.net

PILOTA ▶

Pilotakadak eskualdean

Leitzan, Amezketan eta Tolosan jokatu dituzte partida batzuk: Euskadiko Txapelketa eta Udaberrikoa

NEREA URBIZU

Lehenengo fasea gaindituta, Berria Txapelketan atsedean dute asteburuan Aurrera-Saiatz Tolosako eta Bidegoiango pilota eskolak eta Zazpi-Iturri Amezketakoak. Baina han eta hemen beste bi txapelketa garrantzitsu dituzte esku artean asteburu honetan ere. Pilotazaleek badute zer non ikusi, Tolosako Beotibarren, nahiz Amezketako eta Leitzako frontoietan, eskualdekoek hainbat partida jokatu baitituzte haietan.

Atzo, erredakzio hau ixterakoan, Amezketan Udaberri Txapelketako hainbat partida jokatzekoak ziren: Olaetxea-Otegi bikotea Añorgakoekin kontra, Zabala-Garmendia Eibarko pilotariek lehian, eta Martinez-Zubillaga Usurbilgoen aurka. Aurrera-Saiatz pilota eskolako Aspe eta Orbegozo, berri, Mallabiara joan ziren Euskadiko Txapelketako partida jokatzera atzokoan, iluntze partean.

Gaurkoan, Aurrera-Saiatz Udaberriko Txapelketako asteburuko jardunaldia 11:00etatik aurrera hasiko du, Beotibarren. Senior 1. mailako Telleriarte bikotea Ilunpe

taldearen aurka ariko da, eta ondoren maila bereko Onsalok eta J. Mujikak Aretxabaleta pilotariak izango dituzte aurre. Arratsaldean, Belokik eta X. Mujikak osatutako bikoteak Hernanin jokatu du partida, kadeteen mailan, 16:30ean hasitza. Lasa-Lizarrabar eta De la Sotilla-Etxeberria bikoteak, bestalde, Oartzunen arituko dira, 19:00etan.

Euskal Herriko pilotari onenen arteko Ligan dabilzan artean ere eskualdeko hainbat pilotari daude. Aurrera-Saiatzeko Mujika jubenilak Leitzako pilotari bat izanen du arerio, bihar 10:00etatik aurrera, goizeko laugarren partida baita. Aldiz, 17:00etan, Beotibarren, Senperenak emanen dio hasiera arratsaldeari Oizpeko batekin lehiaz. Jarraian, nagusi mailako Zapirainek Joko Alaiko pilotaria izanen du aurrez aurre. Irazusta-Telletxea jubenilak ikusi ahal izango dira Zaramagakoekin kontra, ondoren. Belloso eta Oteiza Gernikara joango dira jokatzera.

Zazpi-Iturri Amezketan hartuko ditu lehiakide gehienak 16:00etan. Ropon-Legarreta gazteek Lemoakoekin kontra jokatu dute. Nagusietan, Baez



Aurrera-Saiatzeko pilotariak, Udaberriko Txapelketa jokatu. N. URBIZU

eta Garmendia eskola berarekin ariko dira, eta maila bereko Baez pilotariak Inunziagarekin egingen du norgehiagoka. Zaldibiara joan dira Sukia eta Iraola-Arzelus, Ortuellakoekin eta Amurriokoekin kontra jokatzeko, hurrenez hurren.

Urtarrileko onenak

Bestalde, Zazpi-Iturriko pilotarien artean sailkapen bat egingo dute hilabetero, pilotari

onenak izendatzeko. Oraingotan, urtarrileko sailkapenaren berri eman diote HITZARI: Igor Baez izan da onena, hiru partidetatik hirurak ere irabazi baititu. Joseba Baez sailkatu da ondoren, Ibai Roponek jarraituta, hauek lau partidetatik bat galdu baitute soilik. Iraitz Olaetxea, Jon Otegi, Iker Iraola, Unai Garmendia, Unai Legarreta, Jon Martinez eta Iñaki Zubillaga dira taldeko gainontzeko pilotariak.

GERONTOLOGIKOA ▶

'Eta orain zer?' plataformak sinadurak bilduko ditu

Gerontologikoaren alde gaur Tolosan eta bihar Alegian sinatu ahal izango da

N. URBIZU

Eta orain zer? Gerontologikoaren aldeko plataformak zentro berri bat eskatzeko sinadurak bildzeko mahaiak jarriko ditu gaur, 11:30etik 13:00etara, Tolosako Berdura plazan, Trianguloan eta Iparragirren.

Gauza bera egingen dute ere Alegian, Udalaren babesarekin, sinadura bilketa burutuko baita bihar eguerdian herriko plazan. Hain zuzen ere, 11:00etatik aurrera jarriko dute mahai nahi duenak bere atxikimendua eman dezan.

Alegiako Udalak bere garaian plenoan onartu zuen Gerontologikoaren aldeko mozioa, bere «itxiera salatu» eta zentroak eskaintzen zituena «zerbitzu guztiak martxan mantentzeko eskaera» eginez. Orain, eskualde osoan Gerontologikoaren aldeko plataformak egiten ari da firma bilketa, eta Alegiako herritarrei ere beren babesa emateko eskatu diete.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Zer iruditzen zaizu Tolosako Udalaren kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza? Zer baitetan hobetu behar duela uste al duzu? Zabala eta anitza al da? Beharrei erantzuten al die? Zein da zure iritzia honen inguruan? Sartu gure webgunean!



- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

MATRIKULA EPEA:
Otsailaren 6tik 17ra

Matrikulazio Ordutegia:
© 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net



Hirurako Ikastola

- (2-9 URTE)
- Lehen Hezkuntza

'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'



San Migel, 5 • 20271 IRLURA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

SANTA LUZI HEZKUNTZA GUNEA

KALITATEZKO D EREDUA IRAKASKUNTZA

SAMANIEGO IKASTOLA

- ✓ HAUR HEZKUNTZA
- ✓ LEHEN HEZKUNTZA
- ✓ DBH
- ✓ BATXILERGOAK
- ✓ ZIG gela eta LAN HASTAPEN EGOKITUA

943 65 10 63 943 65 13 87

Hirubide

KALITATEZKO HEZKUNTZA

Tel.: 943 65 940
Tel.: 943 65 941
Tel.: 943 65 942
Tel.: 943 65 943
www.hirubide.org

KALITATEZKO HEZKUNTZA

PHOTOGRAPHY OF CHILDREN AND AN ADULT

IBARRA ▶ MUSIKA

IÑIGO TERRADILLOS

Rock doinuak nagusituko dira gaur gauean Ibarrako Gaztetxean. Izan ere, Lor eta Kasu taldekoen zuzeneko kontzertuak gozatzeko aukera izango da, 22:30etik aurrera.

Kasu. 2003. urte bukaeran sortu zen Iruñerriko, «Nafarroako bigarren herririk garaieneko etxe batean», Kasu taldea, «Gofi harana oinpean zutela 4 burkideko soviet gorenak egoera politiko-kulturalaren azterketa egin, eta zirt edo zart egitea ezinbesteko zela erabaki zuten». R-zetak, Seihots eta Na Tua Man «erakunde musikaletan» aritutako jendeak osatzen du, hain zuzen ere. Taldekideak Patxi, Josu, Mikel, Eneko eta Sahats dira.

Taldeak hartu zituen lehen erabakiak «Soviet garena beste burkide batez indartzea», eta «Euskal Herriari borrokarako indarra ta animoa ematea *Beldurrik Ez* aldarrira hortzetan dela» izan ziren. Hala, 2004. urtearen hasieran, hasi ziren lanean, eta urte horretako abuztuaren eskaini zuten lehen jendaurrekoa. Hainbat kontzertu eta gero, pasa den urteko apirilean kaleratu zuten 16 abestiz osaturiko lehen diskoa. Proiektuan Ander, Iker eta Igor aritu dira skratzetan, Jon Bona ahozsean, eta Katrin biolinarekin.

Lor. 1998. urtean sortu zen talde bizkaitarra da, eta partaide guztiak Elorriokoak dira. Gaur egun laukotea osatzen duten lau musikariek, hau da, Kimetz Blancok (baxua), Lander Irazolak (gitarra eta ahotsa), Kimetz Zenitagoa *Dumy-k* (gitarra eta ahotsa) eta Ramiro Untzetak (bateria) jarraitzen dute hasieratik taldean. 14 urte besterik ez zituztela, kantu erreperitorio bat sortu eta beren lehen kontzertua eskaini zuten, Elorrioko Gaztetxeak antolatutako ekital-

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Iturgina. Iturgin lanetarako laguntzailea behar da. Interesatuak deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Txakur emea galdu da. Pekinera gurutzatua. Marroia. Deitu 943 65 39 55 telefono zenbakira.

Lor eta Kasu taldeak gaur Gaztetxean

Lor talde bizkaitarrak bere azken lana, 'Bakoitzari berea', aurkeztuko du; 22:30etik aurrera izango dira kontzertuak



Pasa den urteko udan kaleratu zuen lana aurkeztuko du gaur Elorrioko Lor laukoteak Gaztetxean. LOR

di batean. Orain arte bi disko kaleratu dituzte, biak ere euskara hutsean eta Gor disketxe Nafarrarekin. Talde gaztea den arren, makina bat kontzertu eman ditu, Bizkaialdean gehienbat. Horrela, hasierako urteetan hainbat kontzertu emanez igarotzen zuten euren denbora librea, baita hainbat lehiaketatan parte hartuz ere.

2001. urtean Berrizko Gaztetxeak antolaturiko sortzaile berrientzako Aldapa musika lehiaketaren lehen saria irabazi zuten. Honek 2002. urtean Lorentzo Records estudioan maketa bat grabatzeko aukera eman zion taldeari. Bertan, Aitor Ariñok ekoiztu zuten bost kantuz osatutako maketa, eta autoekoiztutako lana kaleratu baino lehen Gor zigiluaren proposamena jaso zuten. Une ho-

rretan taldea diskoa sortzen jarri zen buru-belarri, eta hilabete gutxi batzuetara berriro sartu ziren Lorentzo Records estudioan Aitor Ariñok eta Beñat Agirreren gidaritzapean. Sei kanta berri grabatu eta maketakoak berriro nahastuz, 11 kantuz osatutako eta taldearen izen bera duen lehen diskoa kaleratu zuten 2003an. *Lor*. Diskoa aurkezten urte luze bat igaro ondoren eta jendearen erantzun «erakargarria» ikusita, bigarren bat grabatzeko aukera aurkeztu zitzaion taldeari, Gor zigilu Nafarraren eskutik berri ere.

Taldeak «oso gertutik eta intentsitate handiz» jarraitu du Euskal Herriko eta atzerriko metal taldeen bilakaera musikal. Talde hauek eragina izan dute Lor-en adierazteko mo-

duan, baina «gero eta irekia» dute entzumenen, «ezinbesteko ariketa baita eboluzionatu gura duen artistarentzat».

Gauzak horrela, taldeak kanta berriak sortzeari ekiten dio entsegu lokalean. Denborak aurrera egin ahala, kanten melodikotasunaz konturatzeko joan dira, eta zenbait ahots proba eginez Lander Irazolaren kantatzeko era nabarmen-tzen zela konturatu ziren. Guztien erabakiz, ahots nagusiaren papera hartu zuten. Kantak jorratuz eta moldatuz jarraitzen dute, eta 2005eko udan Lor-ek bere bigarren lana kaleratu zuten, *Bakoitzari berea* izeneko diskoa. 11 kantuz osatutako diskoa da, eta aurreko lanaren bi moldaketa ditu. Lan horretan ere Beñat Agirre aritu zen teknikari eta produktore lanetan, ekoizketa guztian zehar.

Berriro ere gustuko lan bat egitea lortu dutela eta «bakoitzari berea emanez» jaso nahi dutela jendearen erantzuna zuzenekoetan azaldu dute Loreko kideek azken diskoaren inguruan.

IBARRA ▶

Kalderero Egunean irteteko deialdia

I. TERRADILLOS

Azken urteetan bezala, aurreten ere, Inauteriak iristear direla iragartzeko, hilaren 17an Kalderero Eguna antolatuko dute Ibarren Loatzo musika eskolak eta Hauspoa elkarteak, elkarlanean. Egun horretan 18:30ean aterako dira herriko plazatik ijitoz jantzita eta zartagia eskue-tan dutela.

Festa behar bezalako izan dadin, entseguak egingo dituzte Uzturpe ikastolako musika gelan datorren astelehena, hilaren 13an, 16:30ean, zartagirik gabe; eta asteartean, hilaren 14an, berriz, 17:30ean, zartagiarekin. Antolatzaileek herritar guztiak animatu nahi dituzte, adin mugarik gabe, hau da, haurrak, gazteak nahiz helduak, festa berezi honetan parte hartzera.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaurren autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Alegia), Apartamentua garajearekin, Berria.
Salgai (Berrobi), Pisu, baratza eta txabola. 168.000€
Salgai (Villabona), Kale nagusian pisu egokia.
Salgai (Tolosa), Pisu Laskorain kalean, Zoragarriak.
Salgai (Tolosa), Lokalkomertzialak Nagusia kalean eta Belate ibiltokian.
Salgai (Ibarr), 60m2 lokala.
Salgai (Tolosa), Garajeak Leidor, Pedro de Tolosa eta Plaza Zaharrean.
Alokatzeko (Tolosa), Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.
Alokatzeko (Arribas), 2 logelako pisua, Tolosatik 17km-tara.
Alokatzeko (Tolosa), Lokai girota, Foru kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Pisu Rondilla kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

ENBALAJE INDUSTRIALA
egiteko mutil bat behar da
iluntzeko 20:30etik aurrera deitu
Tel.: 651 657 982

URREZKO AIZKOLARIEN TXAPELKETA ▶

Mindegia-Senosiain eta Azurmendi-Peña finalaurrekoa Leitzan

Banakako txapelketari ere bihar ekinen diote, eta aurreneko bi kanporaketetan Rekondok eta Mujikak parte hartuko dute

JAIONE ASTIBIA

2006ko Urrezko Aizkolarien Txapelketako Binakako lehen finalaurrekoa Leitzan jokatu dute, bihar igandea, 12:00etatik aurrera. Hasiera batean kiroldegian egitekoa bazen ere, antolakuntzatik herenegun jakitera eman zuten, Amazabal pilotalekuan eginen dute aizkora jaialdia.

Azpeitian egin ohi den finalera iristeko lanak estutzen ari dira, eta bihar jokatu den aurreneko finalerdian Mikel Mindegia eta Antonio Senosiainek osatutako bikoteak eta Iñaki Azurmendi eta Jose Miguel Peñagarikanok osatutakoak parte hartuko dute, besteak beste «azken saio horretarako hautagai firmeak direnak», antolakuntzak igorri duen prentsa-oharrak dioenez.

Biharko saio honetan egin beharreko lanari dagokionez, txanda librean nahiz banaka ariko dira aizkolariek, etzanda ez ezik, zutik ere enbor bana ebaki beharko dutelarik, eta irabazten duten lan bakoitzeko dagozkien puntuak jasoko dituztelarik.

HITZAK eskuratu duen egitarauaren arabera, aurreneko saioa (72 ontzakoa, 1,68 metroko inguruarekin) zutik ebaki beharko dute, txanda librean eta bikote irabazleak 2 puntu eskuratu dituzte; hurrena, neurri bereko enborra baina etzanda ebaki beharko dute, hau ere txanda librean, irabaztunentzat beste 2 puntu izan direlarik; ondoren banaka eta beste bikoteko bien aurka,



Jon Rekondo leitzarrak ebean jokatu du kanporaketa. JAIONE ASTIBIA

kana-erdiko bana (54 ontzakoa, 1,25 metroko ingurua) ebakitzeko lana jarriko diete.

Lang desberdinak

Sail honetan lehenbizi Mindegia Peñagarikanoren aurka eta Senosiain Azurmendiren aurka ariko dira; gero Mindegia eta Azurmendi, eta Senosiain eta Peñagarikano. Irabaztuneko puntu bana jasoko dute, kasu honetan. Eta eguneko lanak bukatzeko, 5 puntu balioko di-

tuen neurrak izan dute, txanda librean: launa kana-erdiko, bina 60 ontzako eta beste bina bi oineko ebakitzea.

Bi bikoteen ezaugarriak aita-terakoan, elkar oso ongi hartzen dutela nabarmendu dute. «erabat bateragarri» direla esanez: bikote bakoitzerako Mindegia eta Peñagarikanoren «maisutasuna eta abiadura» eta Senosiain I.aren eta Azurmendiren «kolpea» azpimarratuz. Antolakuntzako adituek zehaztu dutenez, «zutika-

ko lanetan akaso nafarrek [Mindegia eta Senosiainek] alde pixka bat izan dezakete, baina lan luzean gipuzkoarrek duten bezala, elkar ongi hartzeaz gain, oso ongi prestatuta baitaude biak hala biak».

Hortaz, bihar jokatu duten Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketako lehen finalaurrekoarekin, sailkapen koadroa estreinatuko dute. Bigarren finalaurrekoa hilaren 19an jokatu dute Durangon Nazabal-Erdozia eta Arrospeide-Muger-tza bikoteek.

Eta binakako saio honetaz gain, eta txapelketa hau bukatzeko dagoela, biharko jaialdi horretan berean emanen diote hasiera Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketari ere.

Gure eskualdeetakoak

Honetan, urrezko mailan 37 aizkolarik hartuko dute parte eta tartea dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat aizkolari: Arrospeide, Erasun, Otaño, Lasa, Mujika, Rekondo eta Otaegi. Azken bi hauek gazteen mailan ere parte hartuko dute, beste Brekin batera.

Hain zuen ere, aurreneko bi kanporaketa saio jokatu zuten hasiko da biharkoan txapelketa eta herrian bertako Jon Rekondo eta Jexu Mari Mujika ibartarra bertan direla ekinen ere. Bakotzak aurkari bana izan dute aurrez aurre: Rekondok Esnola zegamarra izan du arerio; Mujikak, Xabier Mindegia zubietarra.

Jaialdian zehar, binakako saioekin txandaka plazaratuz, gazteek egin beharreko lana ere zehaztuta dute antolatzaileek. Aurreneko, zutikako 45 ontzeko enbor bana ebakiko dute; beste 45 ontzako bana etzanda hurrena; eta bukatzeko, bina enbor, bat kana-erdikoa eta beste 60 ontzakoa. Bi kanporaketetan, lanak azkarren bukatzen dituenak jarraituko du aurrera, hurrengo kanporaketan parte hartzeko eskubidea irabaziz.

Jakitera eman dutenez, biharko jaialdi hau, ETB1en zuzenean eskainiko dute.

LEITZA ▶

Aurrera-Saiatz taldekoak ditu arerio Aurrerak

Euskal Herriko Pilota Ligako partidua gaur jokatu dute, Kirol Jokoein batera

J. ASTIBIA

Euskal Herriko Pilota Ligan, pilota taldeen artean jokatu ari diren txapelketan, asteburu honetako jardunaldian Aurrerak Tolosaldeko Aurrera-Saiatz taldekoen aurka jokatu du.

Pilota jaialdia gaur izanen da Amazabal pilotalekuan, —bihar hor bertan aizkolariek izanen direla eta igandero partiduak aurreratu egin dituzte—, eta 10:00etan hasita gazteen mailako partidua jokatu dute, buruz buru frontoi osoan, Zuhait Beloki leitzarrak eta Aurrera-Saiatzeko Aritz Mujikak.

Nesken palazko txapelketan, berriz, Iera Agirre eta Saioa Aristorenak osatutako bikotea Lizarrako bikoaren aurka ariko da.

Jaialdi berean, Kirol Jokoei beste bost partidu ikus-teko aukera ere izanen du bertara joaten den zaletuak. Benjamin mailan bi jokatu dituzte: M. Sagastibelza Eguesek eta M. Sagastibelza Lasartek, Lodosako taldearen aurka; O. Mariezkurrenak eta A. Gilek, berriz, J. Goikoetxea eta I. Saralegi eskola bereko kideen aurka. Alebinen mailan, beste bi norgehiagoka jokatu dituzte: Martxel Calongek eta Markel Barriolak, J. Rubiaren eta X. Zestauren aurka, kideak hauek ere; eta I. Gilek eta A. Olanok, X. Jaunarenekin eta J. Iparragirrekin. J. Betelu eta A. Goikoetxeak Obereneta taldekoen aurka jokatu dute, gazteen mailan.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶



Juanita Telleria Elizaran

andrea (Antonio Odriozolaren alarguna)

Ostegunean hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere animaren zuzendaria: Emeterio Sorazu; seme-alabak: M^o Angeles eta Felix, Mertxe, Margari eta Juan Antonio, Juan Antonio (+), Jose Ignacio eta M^o Carmen; bilobak: Josu, Nerea, Iñaki, Jon, Maria, Irene, Juan, Alazne, Idoia eta Aimar; anai-arrebak: Antonio (+), Pablo (+), Pilar (+), Gregorio (+), Joxepi, Joxe (+) eta Miren; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidak.

Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte Gaur LARUNBATA arratsaldeko BOST ETA ERDIETAN SAN BARTOLOME parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Zubiaurre ebea
oharra ▶ Gorpua Tolosaldeko Funeraria Vascongada Tanatorioan dago. Errosarioa 17:15ean errezatuko da.

IBARRAN, 2006ko otsailaren 11n

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko otsailaren 11, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

07

hotzena

04

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:



gaur: bai / bihar: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurerria, Kultura Saila



HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidetuen egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Villabona. *Cantervilleko mamua.* Bihar, 17:00etan, GUREA zinema aretoa.

DEIALDIK

Alegia. Alegia-Altzo-Ollaun mendi irteera antolatuta du San Juan Herri Eskolako Guraso Elkarteak. Irteera Eskola Txikitik izango da, bihar, 09:30ean.

Alkiza. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak irri-terapia ikastaroa antolatuta du ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara, Kultur Etxean. Izen-ematea, Mankomunitatean (943 69 39 30).

Anoeta. AHTri buruzko saioa: hamaiketakoa, trikitaliak, bertsolariak, txalapartariak, panel informatiboak, txango informatiboa, bazkaria Sarasola sagardotegian...

Tolosa. *Eta orain zer?* Gerontologiako aldeko plataformak zentro berri bat eskatzeko sinadurak biltzeko mahaia jarriko ditu gaur. 11:30etik 13:00etara, Berdura plazan, Trianguloan eta Iparragirren.

Villabona-Aiztondo. Emakume Egunari buruzko kartel lehiaketa, Adunako, Andoaingo, Asteasuko, Larraulgo, Villabonako eta Zizurkilgo 16 urtetik gorakoentzat. Izen-ematea, Andoaingo Bastero kulturgunean.

INAUTERIAK

Lizartza. Inauteri aurreko jaia: Otsolar dantza taldeko kideek txekorra hiltzeko parodia egingo dute eguerdian, garai bateko ohiturak gogoratuz; amaitzean, gibela jateari ekingo diote; ondoren, musika eta dantzak ez dira faltako.

Tolosa. Zaldunita bezperako danborradarako entseguak. Hilaren 13an, 14an, 15ean eta



Arpegi taldearen jaialdirako sarrerak salgai

TOLOSA ▶ Urteroko ohiturari jarraituz, Ostiral Mehe gauean jaialdia eskainiko du Arpegi taldeak. *Zirkuko mutilak* du izenburu aurtengo ikuskizunak (irudian, jaialdia iragartzen duen kartela), eta Beotibar pilotalekuan izango da ikusgai. Sarrerak salgai daude dagoeneko Triangulo kafetegian eta Cantabrico eta Atodo tabernetan, 6 eurotan. HITZA

16an, 20:00etan, Kultur Etxean; eta hilaren 21ean, 20:15ean, Musika Eskolan.

MUSIKA

Tolosa. El columpio asesino taldearen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

ZINEMA

Leitza. Jim Jarmusch *Flores*

rotas. Bihar, 19:30ean, zinema aretoa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA


Txolarre irrateria

(107.5, 101.2 FM)
 10:30-13:00. *Hitzak* hegan magazina: elkarrizketak, *Mundurako* leihoa, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

Goiko irrateria (107.0 FM)
 13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 229.a (2006ko otsailaren 10a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. TAO sistema sekreturik gabe.
Beste gaiak. Gurasoentzako tailerrak Ibarra, Gerontologiakoaren itxieraren ondoren, eskolak eskalduntzearen alde, Palestinako egoerari so...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
 ▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
 ▶ 943 65 50 04
 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com
 ▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 250.a (2006ko otsailaren 10a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Joxe Arregi hil zutela 25 urte.
Beste gaiak. Onddolaro trikuharria, Zizurkilgo toponimia, Asteasuko Guraso Elkarte, Santa Eskea, sagardotegien inguruan, Inauteri atarian, Aiurri-ren urtekaria kioskoetan salgai...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
 ▶ Kale Berria 47, 3. esk.
 ▶ 943 69 64 50
 ▶ aiurri@topagunea.com
 ▶ www.aiurri.com

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Agustin Ezeiza (Urkizu).
 Zorionak familiaren partetik. Aрги parranda horrekin!



URTE ASKOAN
Lurdes Ugartemendia (Berastegi). Zorionak biloben partetik urtebetetzea eta Lurdesko Ama Birjinaren egunarengatik. Lan gutxi egin!



URTE ASKOAN
Ageda Sarobe (Hernialde). Zorionak zure senar eta seme-alaba eta zure biloba Aloña, Lierni eta Lorenaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk... zoriontzeko, etorri:
HITZAREN egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
 Mila esker!